


HARATEGIA - URDAITEGIA

P. ARAMBERRI



- * Bertoko txahala
- * Idi txuleta
- * Berton hildakoa
- * Urdai egosia
- * Etxeko txorizua
- * Txistorra

Kantabria, 1 Tfnoa: 17 64 65



OKINDEGIA
GOZOTEGIA

SAN ANTONIO

Izelaieta, 40 Tfnoa. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tfnoa. 17 38 40

ERMUA

ELUR

ESTETIKA • EDERGINTZA

- Behin betirako depilazioa (Epilator metooda)
- Gorputz eta aurpegi tratamenduak

Goienkale, z/g. • Telefonoa: 17 60 52

OILLARRA HARRAPATU NAHI TA BESTE BAT AURRERATU

IÑAUTERIXETAN, EGUEN ZURI EGUNIAN, BESTE IÑUN OSPATZEN EZ DAN "OILLARRAREN EGUNA" DOGU ERMUARROK.

Herriko umiak itzeleko ilusiñuakin itxaroten doutsu egun horri. Arratsaldian "koko" jantzi ta plazan emoten ditxugu orduak, mikrofonotik On Teodorok gure izena noz esango ote daben zain.

Eskuetan izenez betetako hiru poltsa ikusten jakoz. Millagro haundixa izango

hori animatzen.

On Teodorokin berba eitxen egon naz ta bera hona etorri zanian, oin dala 50 urte, bardin jotatzen ei zan. Plaza buruan hasi ta frontoiraino jua bihar izaten zan, begixak tapauta ta makilla batekin. Aldamenian beti txistulariak. "Sasoi baten, umiak gabaz ibiltzen zian makillatxo batekin aprobak eitxen, hurrengo egunian zelan jua bihar zian ensaiatzan" barrezka gogoratu dau On Teodorok. Bidia errezteko, ezkertera



Oillarra Eguna orain dela 30 bat urte.

zan nire izena urtetziak. Urtero ahalegintzen naz, baiña sekula santan ez nabe deitu... Uau, hau poza! Neu noia horren hurrengoko! Aurreruntz doia tipua. Demontre, harrapau baietz! Kaka zaharra, jo dau kajiori! Markia da hau, behin euki aukeria ta makillia hartzera aillegau bez!

**Sasoi baten, umiak gabaz
ibiltzen zian makillatxo
batekin aprobak eitxen.**

Aitak esan dosta bera birritxan ekin zoutsala ta plaza erdiraino bez ez zala heldu. Horrek lasaitu ein nau. Aintxiñeko usadizua dala esan dau, aitzitxaren aitzitxak be ezagutu ein ei zebe ta bera umia zanetik dauala On Teodoro egun

edo eskumara juateko garrasia eitxen jakuen. Gaurko umiak, oillarra errezago harrapatzen dabela diño, "nere ustez ikusi eitxen dabe".

Markautako erraixa batzutatik ezin zian beste umiak pasau. Baiña jotatzen zeuana bidian aurrera zijioian neurrixan, ibiltzen bez ixten ez zoutsan ume mordua inguratzen jakon. "Luzaruan, Juani-llo munizipala ta Euzki enterradorea orden pixkat ipintzen arduratu zian. Ingu-ratzen ziane, zumitzezko makilla fin fiñekin bri bra hanketan emoten zoutsie-la" aitxatu dau.

Oillarra, frontoiaren erdi aldera egoten zan kaja baten sartuta. Gaur egunian be hantxe ipintzen da. Ha suertia kajari makillakazua emotia lortzen dabenana!

Estibalitz Gonzalez